

Historiarik gabeko Ipar Euskal Herria?

Piarres Xarritton

Bere 1969ko azken zenbakiaren ondotik, bigarren zenbaki bat eskaini nahi izan diolarik Ipar Euskal Herriari JAKINEk, elgarretaratu gara aspaldiko adiskideak... eta beste zenbait. Erabaki ere dugu behin, gaurko Iparraldeaz ariko ginela bakarrik, bazter utziz historia saila. Bainan gogoratu zaigu gero berehala, Historiarik gabeko Ipar Euskal Herria aipu berri zuela hain zuzen, artikulu gogor batek¹.

Ez dut uste asko irakurri denik gure euskaldean gutartean bizi den *Beltzaren* artikulu aberats eta zirrikagarria. Mereziko zuen bada: birilgatzen ditu alabainan, nehork ez bezala, bere gaiari buruz sakabanaturik zeuden azken denbora hauetako ikerlan gehienak. Gure historiaren hari eta piru galduen biltzeko ardatz bat eskaintzen digu, bestalde, «historiarik gabeko Ipar Euskal Herriaz» ari zaigularik. Baina bi adierazgarri desberdin eman diezazkioke «historiarik gabeko herria» darabilan formulari. Edo gerlarik, jazarzterik, gertakari handirik gabeko herriaren bizia du adierazten —eta badirudi artikulu horren izenburua horrela hartu behar dugula— edo «historiarik gabeko herria» deitzen dugu, bere berezko historiarik ez duelako, besteen historia jasan eta bizi behar duen herri kolonizatua.

1789tik 1934ra iragan diren 15 urtetan, dio *Beltzak*, Iparra isilik egon da, Hegoaldean gerlak eta jazarteak gertatzen ziren bitartean. Jaeneriaren eta notableen arteko liskar purruxka zenbait gorabehera, herria, bera odolustu da eta lur-burgesia gider orotaz jabetu. Egoera horren baliatzaileei Elizak die eskaini beharrezko zuten zimendu ideologikoa. Horra nolatsu ikusten duen historigileak joan den mendeko gure bilakaera².

Aitortu behar dugu gure adiskidea puntu askotan zuzen dabilela. Orogen buru J. L. Davant-ek eta R. Kanblong-ek bilduak zituzten, 1969ko JAKINen zenbakian, *Beltzak* darabiltzan datuak; argi eta garbi erakusten digute nolakoa izan den Iparraren beharakada ala demografiaren aldetik, ala ekonomiaren aldetik. Baina bestalde, *Beltzak* adierazi nahi digu, nondik nola etorri den isil-isila, beharakada deitoragarri hori; honelatsu neur dezakeguna: joan den mendean iparraldeko euskaldunak 1/4 baginen eta gaur 1/10 ez gara.

Frantziako Iraultza etorri zenean, 1789an, egia da aintzineko sistema krisian sartua zela ordukotz Euskal Herrian; egia ere, iraultza horrek gure krisia emendatu eta sakondu zuela. Ikerle guztiek diote, 1793ko martxoaren 7ko legeak, etxaldeak seme-alaba guztien artean zatitzen zituenak, alde batetik, eta 1827ko oihan-legeak, bestetik, baserri tipi asko zorren azpian eta ezinbestean ezarri zituztela. Zenbat, zenbat nekazarik ez du Ameriketako edo Frantzia behereko bidea hartu, bere etxea eta lurra notariaren edo beste burges dirudun baten eskutan utzirik, «zorrraren truke»!... Zuberoak berak 30.000 seme-alaba galdu ditu horrela, 1834tik 1894raino³.

Odolustutze izigarri horren aintzinean zer izan den herri-gizonen egoera badakigu: bertsotan, idazkitan eta predikutan kondenuatu egin da maizenean emigrazioa. Garikoitz, Garat, Arbelbide edo beste apez zenbaiti gogoratu zaio ere, euskal semeen lagun, urrungo leihorretara joatea, nahiz eliz buruzagiek, XX. mende erditsutararte, ofizialki deus ez duten egin. Baina funtsera eta emigrazio horretaz lur-burgesia baliatu egin da bere nagusitasuna eta indarra finkatzeko. Alde batetik alabainan, gazteria herritik bazihon neurrian, herriko indar kontrestatzaileak eta berritzaileak ahultzen ziren. Bestaldetik analisi sozial sakonik egiten, ez zen ikasten gure herri-gizonak moldatzen ziren seminario eta ikastegietan. Hor dugu lekuko Hiriart-Urruty batek «Euskalduna» kazetan zabaltzen zuen ideologia ezezkorra.

Bai gu ere *Beltzarekin* bat gabiltza zera dioenean: jakintzaren eta teknikaren kontra, industriaren eta langileriaren aurka zihon

ideologia «totalitario» horrek Herria zapaltzen lagundu diola gure Lur-Burgesiari⁴. Baina ez dut uste honetan geldi gaitzekeenik, P. Bidarten kritika hau guretu ondoan. Asko puntutan azaletikakoak eta dogmatikoegiak dira P. Bidarten ikerlanak. Iku-si ere behar da nor zer ziren beste aldetik eskaintzen ziren ideologoak eta ideologiak. Beren gibelatuan, beren zozoan, ez ote zuten senti joan den mendeko gure euskaltzaleek, guk orai ikusten duguna, gure Iparraren gaitz nagusia «Historiarik gabeko herri bat» izatea dela, gure historia kendu baitigute eta besteena sartu.

Ezen dut uste «Euskal ideologia erreakzionarioa euskal-frantsesa bihurtu» zenik osoki, joan den mende hondarrean, *Beltzak* dioen bezala⁵. Gaur egun Urko batek berriz modan ezarri duen abestia «Zazpi Euskal Herriek, bat egin dezagun...» joan den mendekoa da, Zaldubirena eta nihaurk etxeko supazterrean haurrean ikasia. Haur denboran dut ere ikasi «Lapurdi eta Baxenabarre...», Gilen Cazenave tenorek kantatzen zuen Mendiaguen kantua. Bestalde mende hastapenako Hondarrabiako biltzarra aipatu behar badugu, erranen dugu Iparraldeko euskaltzaleak bazirela, nornahi bezainbat euskararen batasunaz axolatuak. Gehiago dena, Piarres Broussainen paperetan nabari da bera zela bere hegoaldeko bi adiskide handi, R. Azkue eta S. Arana Goiri, bien ararteko jartzten. Eta Larrinagako presondegian Sabino sartu zutelarik, Iparraldetik beren atxekimendua erakutsi zioten Arbelbidek, Daranatzek eta Broussainek. Azken honek bereziki bai gazetetan, bai Hazparneko auzapez zelarik, bai beti eta bururaino, «abertzale» zeukan bere burua.

Aitortu behar duguna da bizkitartean, 1789az geroz bereziki, Frantses Estatuak bere Historia sartu digula, nahi ala ez, Iparraldean; sartu bere politika, sartu bere ekonomia, sartu bere kultura. Sartu eta beti sartzen ari, zorigaitzez. *Beltzaren* lanak erakusten digu hain zuzen baditugula ikerlan batzu oraino egingai daudenak. Hala nola, European edo Kolonietan, Frantziak irabazi edo galdu dituen gerlek, zer oihartzun izan duten gure eskualdeetan, Napoleonen balentrietarik hasita, Algeriako itsuskerietaraino, «gerlari ohi» gogo gutartean finkatzeko, behar genuke bilatu. Nahi genuke ere jakin nola Frantziak igorri eta igozten dizkigun bere guardak, bere jendarmak, bere erriantak, bere serorak eta apezpikuak, bere «barberak» eta teknikoak, bere turistak eta kapitalistak, ezen etorkinen problema ez da bakarrik hegoaldekoa; 1968tik 1975eraino, 32.500 etorkin irentsi behar izan dituenaz geroz Baionako eskualdeak berak: % 15 inmigrazioa heldu baita 7 urtez.

Pariseko lege gaitzak aipatzen zituzten gure aintzinakoek, fraileak eta serorak ohiltzen zituztenak eskoletarik eta Frantziatik. Lege horien kontra jartzen ziren Iparralde honetan euskaldunak beren apez eta apezpikuek sustaturik, baina beste Pariseko lege batzuk Euskal Herria bera odolusten zutelarik, gure lurra arrotzen eskutan ezartzen, gure mintzaira eskolatik, irratitik eta berdin elizatik kentzen, gure gazteak ehunka eta milaka urruneko ehailtegiara eramaten, ai orduan isilik egon behar zen. Piarres Larzabalek, bere azken liburuan erakusten digu noraino sartua zen Baionako apeztegitan Frantziaren erlijioa ⁶.

Eta gero historiaren lagun, psiko-soziologiaren aldetik ere bagenuke azterketa bat egiteko gaur gaurko egoerari buruz, Baiona alde honetan berean, ikusteko zer heinetaraino dagoen euskalduna apaldua eta zapaldua, bere gogo-bihotzez desjabetua, bere buruaz ahalgetua eta etsitua. Ez dugu guk zorigaitzez SIADECO-rik lan horren egiteko. Baditugu beharrik, gero ta gehiago, gazteak, gaitzari ohartzen hasiak. Hauek dabilta ikastaldietan eta gaueskoletan, hauek ere, polizak begietan dituen euskal talde gorde edo agerietan, hauek berak dira gurutzatzen hegoaldeko haurridekin, azkenean hauek bide diote itzuliko herri kolonizatu honi berezko historia.

Joan den mendearen hasieran Gilen von Humboldt prusiarrak iparraldeko eta hegoaldeko —edo berak zioen bezala «iguzkialdeko eta itsasaldeko»— euskaldunak konparatzen gintuen. Iparraldean ba omen genituen ordukotz, «herri zapalduak eta zokoratuek dituzten itzalak». Hegoaldean aurkitu zituen, aldiz, eskubide berdinen eta askatasun ongi orekatuaren ondorio aberatsak: Herri bakar bat dela dakien eskualdeari, bere egiazko kultura herrikoiak ematen dion itxura berezia ⁷.

Gaur ez dakit zer erran lezakeen prusiar jakintsuak, Madrile aldetik jasan dituen erasoaldi guztien ondotik, hegoaldeak ere galtzer baitu naski, bere ohiko oreka eder hura. Ez dirudi ordea behin ere gaur bezain indartsu ozen izan denik, Erriberatik Lapurdiraino, Herriaren hotsa eta batasunaren deia. Beren historia daramaten Parise ta Madrileko estatuen aurrean, Euskal Herriak nahi badu bere berezko historia bere eskutan hartu, Hegoak eta Iparrak behar dugu elgar ezagutu eta elgar lagundu.

¹ LOPEZ ADAN, Emilio: *Ipar Euskal Herria: 150 urte historiari-
gabe* (1789-1934), «Saioak» II-2, Donostia, 1978.

² Op. cit. 133 or.

³ Ikus 11 or.

⁴ Ikus 131 or.

⁵ Ikus 123 or.

⁶ LARZABAL, Piarres: *Nere mendixkatik*, Dizkola, 1978, 23-27 or.

⁷ BASANEZ, J.: *Qué dicen de los vascos*, II, Zarautz, 1975, 401-406 or.

P. X.

**EL PAIS VASCO NORTE: PAIS SIN HISTORIA?
LE PAYS BASQUE NORD: PAYS SANS HISTOIRE?**

«País sin historia», la fórmula es ambigua. Si se quiere indicar con esto que nada importante pasa en ese País, parece que no se puede aplicar este concepto al País Vasco Norte de 1789 a 1934, como lo hace, por ejemplo, «Beltza» en la revista «Saioak» (II, 2, 1978). Ha habido efectivamente esta degradación económica y demográfica espantosa que todos los autores reconocen, pero cuyo análisis es frecuentemente superficial.

Pero al contrario, si se admite que el País Vasco Norte sobre todo después de 1789 no es dueña de su historia y debe sufrir la historia que le impone un Estado extranjero, no hay duda de que somos realmente un «país sin historia», sin historia propia se entiende. Hay, pues, toda una historia colonial de nuestro País a hacer.

«Pays sans histoire», la formule est ambiguë. S'il s'agit d'indiquer par là que rien d'important ne se passe dans un tel pays, il ne semble pas qu'on puisse l'appliquer au Pays Basque Nord de 1789 à 1934, comme fait par exemple «Beltza» dans la revue «Saioak» II-2, 1978. Il y a eu en effet cette dégradation économique et démographique effroyable que tous les auteurs reconnaissent, mais dont l'analyse est souvent superficielle.

Mais par contre si l'on admet que le Pays Basque Nord depuis surtout 1789 n'est plus maître de son histoire et doit subir celle que lui impose un Etat étranger, il ne fait pas de doute que nous sommes bien un «pays sans histoire», sans histoire propre, s'entend. Il y a dès lors toute une histoire coloniale de notre pays à faire.